



Venta Laperra kobazuloan grabaturiko irudiak (Karrantza Harana / Valle de Carranza)

Venta Laperra kobazuloa altuera ertainean irekita dago, Miron mendiko iparraldeko malda malkartsuan, atzealdean Karrantza ibaia duen haranean.

Erdiko Paleolitoan (kultura musteriensea, K.a. 95.000-35.000 urte, gutxi gorabehera) eta Goi Paleolitoaren hasieran (kultura auriñaziensea, K.a. 25.000-20.000 urte, gutxi gorabehera), ehiztari-biltzaile taldeek okupatu zuten eta horiek alde horretako baliabide naturalak ustiatu zituzten (suharria, landareak eta ehiza, batez ere ahuntza eta sarrtoa). Okupaziorik gabeko aldi luze baten ondoren, artzain taldeek ehorzketa lekutzat erabili zuten (kultura kalkolitikoa, K.a. 3.000-1.800 urte, gutxi gorabehera), eta Karrantzako trikuharriak ere horiek egin zituzten.

Erabilitako teknika, okupazioaren kultura eta luminiszentziak lorturiko datak kontuan hartuz, irudiak Goi Paleolitoaren hasieran grabatu ziren (K.a. 25.000 urte, gutxi gorabehera). Horien bidez, gelaren leku laikoa santutegi bihurturik gelditu zen, eginkizun apaingarria ez ezik segurutik sinbolikoa ere izan zuela aintzat hartuta.

Lau bisonte irudi eta hartz irudi bat grabatu ziren, baita ildo batzuk ere, eta horien formak (bisonteen forma batzuen antzekoak izan arren) ezin daitezke halakotzat seguru interpretatu.

Ezkerreko hormaren zimurtasunei dagokienez (sartu eta batera), bisonte ingerada bat grabatu zen, bizkar horizontalaren gainean bat-batean erortzen den konkor indartsu batez osatua; horren muturrean, angeluan okerturiko buztan gogorra altxatzen da. Ingerada dorsalarari ipurmasaila eta hanka lerrozuzena gehitzen zaizkio; horrek, belaunburua ezabatuz, kainaren hasiera deskribatzen du. Sabela ere (izterrondoa ezabaturik dago) barruranzko angeluan diseinaturik dago, bi lerro konbergenteren bidez, eta horietariko baten muturrean ukondotxoaren hasiera dago.

Horman bertan, atzeko trenaren aurrez aurre, beste bisonte bat dago, eta horri gibaren eta sabelaren zati bat falta zaio; hori ere eskematikoa da, baina forma biribilak ditu.



Eskuineko horman beste bisonte bat dago, aurrekoak bezain eskematikoa, eta horri buztana kendu baina eskua gehitu zaio. Horren eskemak ez dauka lehenengoaren beste angelu, eta bigarrenarena bezain biribila ere ez da.

Eskuineko hormako atzealdean hartza dago, eta horri sabela eta hanka falta zaizkio; baina beste xehetasun batzuk ditu, adibidez, begia eta atzaparrak. Irudiak ez dauka batere proportziorik, neurri batean ingerada dorsala eta hanka elkarrangandik urrun daudelako, eta elkarrekin orientaturik ez daudelako; zatiak lotzeko eta horiei proportzioa emateko modua guztiz desberdina da, aurreko kasuei dagokienez.

Irudi guztiak eskema eran adierazita daude; izan ere, osorik ez egoteaz gain, euren formek berezko ingeraden modulazioa ezabatzeko joera dute.

Guztiak grabatuaren teknika erabiltzen dute. Lehenengo eta behin zirriborroa diseinatzen da, horma zizelarekin markatuta; gero, horri akabera ematen zaio, harik eta ildoa amaituta egon arte.

Orainsu egindako ikerketek haitzean bertan berregin dituzte irudien formak eta grabatzeko prozesua; irudi bakoitza pertsona batek egin zuela ondorioztatu da. Ondorio hori euskarritzeko, irudien zatien zabaleran, sakoneran, inklinazioan eta akabera mailan dauden desberdintasun handiak hartu dira kontuan, baita lerroen arteko loturako formen arteko desberdintasun handiak ere. Gainera, eskemak egiteko zaletasunean ere desberdintasunak daude.

Kantabriako (Hornos de la Peña, Chufín) eta Asturiasko (Laviña) beste kobazulo batzuek ere gelaren aldean dute euren santutegia; horretan desberdinak dira kobazulorik gehienetatik, gehienetan santutegia sakoneko lekuetan egoten baita, eguzkiaren argirik ez duten eta sarrera gaitza duten lekuetan.

Testua: Juan María Apellániz.



Venta Laperra kobazuloan grabaturiko irudiak

Karrantza. (*La Cadena auzoa*).

Nola heldu:

BI-630 errepidetik joanda, Karrantza harana zeharkatuko dugu, Kantabrianantz. Kobazuloak bi lurraldeen arteko mugan bertan daude.

Bisitak egiteko ordutegia:

Ikerlariak bakarrik sar daitezke.

Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

(*Karrantza*)

- Palotinotarren bainuetxea. (*El Molinar auzoa*).
- Sopeñako artadia.
- Biañezko eliza zaharra. (*Biañez auzoa*).
- Pozalagua kobazuloa. (*Ranero auzoa*).
- Santa Cecilia eliza. (*Santecilla auzoa*).
- Haizkoko trikuharriak.

